



Bertaratutako kideak:

**Santiago Álvarez Folgueras jn.**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteon Federazioen ordezkaria HERRIKOA

**José María Carrillo Álvarez jn.**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteon Federazioen ordezkaria HERRIKOA

**Pedro María Baile Torrea jn.**

Representantes de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteon Federazioen ordezkaria CONCAPA

**Sergio Gómez Salvador jn.**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteon Federazioen ordezkaria CONCAPA

**Ernesto Delas Villanueva jn.**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteon Federazioen ordezkaria SORTZEN

**José Miguel Gastón Aguas jn.**

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS

**Iñaki Berasategi Zurutuza jn.**

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria LAB

**Carmela Muñoz Ventura and.**

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FETE-UGT

**Francisco José Flores Pérez jn.**

Representante de las asociaciones Empresariales/Enpresari elkarteon ordezkaria

**Estebe Petrizan Iriarte jn.**

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Esther Monterrubio Ariznabarreta and.**

Representante de la Administración

Iruñean, 2015eko abenduaren 21aren 17:15 direlarik, Eskola Kontseiluko egoitzan (Kale Nagusia, 56 – Ezpeleta Jauregia) Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko Osoko Bilkura biltzen da, Aitor Etxarte Berezibar Jaunaren lehendakaritzapean, ondoan agertzen diren kideen presentziarekin, eta Fermin Casado Leoz Jn. Idazkari bezala, hurrengo gai-zerrendarekin:

1. PAIren 1. ebaluazioa.



Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Pilar Elcarte Elcarte and.**

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Alfredo Hoyuelos Planillo jn.**

Personalidad de reconocido prestigio/Aitortutako ospea duen pertsonalitatea

**Cristina Bayona Saez and.**

Representante de las Universidades/Unibertsitateen ordezkaria UPNA

**Aurora Bernal Martínez de Soria and.**

Representante de las Universidades /Unibertsitateen ordezkaria. Universidad de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea

**Francisco Javier Pérez Cueva jn.**

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

**Josu Repáraz Leiza jn.**

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra-Federación de Ikastolas de Navarra/Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria-Nafarroako Ikastolen Elkarte

**Fernando Barainca Lagos jn.**

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA

**Jesús M<sup>a</sup> Ezponda Iradier jn.**

Representante de Directores y Directoras de centros docentes privados concertados/Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria

**Javier Albizu Sanz jn.**

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

**Lourdes Larunbe Arretxe and.**

Representante del Personal de Administración y Servicios de los centros Docentes/Ikastetxeetako Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria

**Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz Zubeldía jn.**

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe



privatuetako entitate titularren  
ordezkaria/ANEG-FERE  
**Juan Ramón Elorz Domezáin jn.**  
Representante de la Administración  
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren  
ordezkaria

**Mikel Fernández de Quincoces  
Martínez de Birgala jn.**  
Representante de la Administración  
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren  
ordezkaria

**Ignacio Toni Echeverría jn.**  
Representante de las Personas con  
discapacidad de Navarra/Nafarroan  
desgaitasuna duten pertsonen  
ordezkaria/ CORMIN

**Miren Aranoa Astigarraga and.**  
Representante del Parlamento de  
Navarra/Nafarroako Parlamentuaren  
ordezkaria (EH BILDU)

**M<sup>a</sup> Luisa de Simón Caballero and.**  
Representante del Parlamento de  
Navarra/Nafarroako Parlamentuaren  
ordezkaria (I-E)

Bere absentzia desenkusutzen dute:

**M<sup>a</sup> Soledad Garjón López and.**  
Representante del profesorado de  
centros públicos/Ikastetxe Publikoetako  
Irakasleen ordezkaria AFAPNA

Ez ziren bertaratu:

**M<sup>a</sup> José Anaut Couso and.**  
Representante de las organizaciones  
sindicales/Sindikatuaren ordezkaria/UGT

**Sonia Cabrero del Amo and.**  
Representante de las Asociaciones que  
trabajan por la igualdad/Berdintasunaren  
alde lan egiten duten elkarteen  
ordcezkaria

**Camino Bueno Zamarbide and.**  
Representante de Directores y Directoras  
de centros docentes públicos/Ikastetxe  
publikoetako zuzendarien ordezkaria

**Jorge Lanchas Rivero jn.**  
Representante de las entidades titulares  
de centros privados de



Navarra/Nafarroako Ikastetxe  
pribatuetako entitate titularren  
ordezkaria/ANEG-FERE

## 1. PAI-ren 1. ebaluazioa.

Lehendakariak Hezkuntza Kontseilariari, José Luis Mendozari, ematen dio hitza eta honek bere aurkezpenari hasiera ematen dio, eduki hau daukan PAIri buruzko dokumentu bat irakurtzen:

*“Arratsalde on, jaun-andre preziatuak. Buenas tardes.*

*Nafarroaren Eskola Kontseilu aurreko aurkezte honetan, Ingelesezkiko Ikasketa Programaren lehenengo diagnostikoa dela eta, PAIa jada martxan dagoen zentroetan jarraituko duela 2016/2017 ikasturtean, nahiz eta presaka eta inprobisazioaz ezarri eta zabaldu egin den.*

*Hezkuntza Departamentuak aurrematrikulen epeak otsailean irekiko ditu, beti bezala. Horrela bada, PAIa eskaintzen ari duten ikastetxeek aukera hau eskaini dezakete bere 3 urteko ikasle berrientzat, baita aurretik ikasten zutenentzat ere.*

*Nahiz eta programaren garapena ona egiteko oztopoak egon, Departamentuaren ustez, ikastetxeetan sortutako sinergiak eskola komunitateak duen helburua hobetzeko balioko dute: Nafarroako hezkuntza publikoaren hezkuntza eredu ezberdinetan atzeritar hizkuntzen trataera integratu eta egokia bat lortzea.*

*Bitartean, sistemaren ebaluazioarekin jarraituko da, eta ondorioz, ez dira ikastetxe berririk gehituko, hizkuntzen trataera integratu baten programazioaren ondorio onuragarriak lortarazten duen metodo egokia eduki arte.*

*Hezkuntza gai hain garrantzitsuari buruzko egin dugun komunikazio nahasiaren ardura hartzen dugu. Argi daukagu atzeritar hizkuntzen hizkuntza programa bat badagoela, bere ikasketaren eskaera sozialan oinarritua, batez ere ingelesaren kasuan.*



*Departamentu honen helburua, ezarpenaren hobetzea eta, ondorioz, jada existitzen den programarena izan da, eta helburu honekin ari gara lanean hasieratik. Aurreko Departamentuak programa ezarri zuen modua zalantzan jartzen dugu, inola ere bere beharra.*

*Programa hau aurrera atera da irakasle eta zuzendaritza taldeen borondatea eta irimotasunari esker, Departamentuak askatasun osoz lan egiten utzi baitzien, zuzentzaile argi batzuk gabe eta beharrezkoa den laguntza tekniko eta formatiborik gabe. Ordena jarri nahi dugu irakasle eta ikasleak laguntzeko, eta ondorioz, PAIk eskaini ahal ditugun berme guztiak izan ditzan, bai legalak baita teknikoak ere.*

*Orain, gaur aurkezten ari naizen erabaki hau hartzeko faktore nagusiak azalduko dizkizuet.*

*Momentu honetara arte bildu ditugun datuak direla eta, PAI Nafarroako ikastetxeetan ezartzearen prozesuak ez ditu arau edo alde aurretik ezarritako protokolo batzuk jarraitu. PAI programaren sarreran, ez dira antzeko prozeduretan (Urrutiko Hizkuntz Eskola Ofiziala edo Elebi Sekzioak) beharrezkoak diren ohiko betekizunak eskatu. Ez da Zikloen taldearen, ezta Pedagogia Koordinazio Batzordearen, ezta Eskola Kontseiluaren, ezta zentroaren klaustroaren baimena eskatu.*

*Kasu batzuetan, gutxienekoetan, ez zen txostenik existitzen, eta kasu gehienetan txostenak ezkorak ziren, ikastetxe batean ez ezartzea aholkatzen zutenak. Azken urte hauetan programari gehitu diren ikastetxeen gutxieneko batek bakarrik betetzen zituen betekizunak. Ondorioz, aldeko txosten teknikoak ez ziren Hezkuntza Departamentuko erabakiaren oinarria, eta gainera, oraindik ere ez dakigu zein irizpide segitu dituzte.*

*Sumatu den beste arazoetako bat izan da Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren arteko lotura bat finkatzeko aurreikuspen eza. Bigarren Hezkuntzan dena dago egiteke, PAIko ikaslerik ez baitago oraindik.*

*Beste alde batetik, Hezkuntza Departamentuko planifikazio orokorraren eza, hala nola irakasleriaren formakuntza planena eta baliabide egokiena, ikastetxe eta irakasleei*



esfortzu estra bat egitera bortxatu die, programaren garapena ahalbidetu duenak, baina adierazitako hutsuneekin.

Sartzeko betekizunen araudia finkatzea behar bat da, zalantzarik gabe.

Programa eleaniztuari gehitu nahi direnak, ikastetxeen eransketa prozedura arautua izan beharko dute. Lehenengo, Klaustroaren eta/edo Kontseiluaren hitzarmenarekin Hezkuntza Departamentura eskaera egin beharko litzateke. Bigarren, ikastetxeak bere Hizkuntza Proiektua aurkeztu beharko luke, eta hirugarren, Hezkuntzak Hizkuntzak eta Ikuskaritza Zerbitzuak egindako egokitzapen txostenak egiten jarraitu beharko lituzke.

Lehenengo diagnostiko honek egiaztatzen du azken urteetako PAIren ezarpenak ez zuela prozedura sistematizatu hau. Horrela, azkeneko 2014-15 eta 2015-16 ikasturteetan, PAIren ezartzea, ondorengo balantzea dauka:

- PAIren ezartzea aurrera atera da, nahiz eta Ingeleseko sekzioaren txosten teknikoen gehiengoa ez zuen aholkatzen.
- PAI ezarri den %10en ikastetxeetan bakarrik ezartze balorazio positiboa dauka, Ingeleseko Sekzioaren teknikariek egina (2k 21etik).
- PAI ezarri den ikastetxeen %76ak aurre-ezartze balorazioa ez aholkatzearena da, Ingeleseko zerbitzu teknikoek egina (21etik 16k). Azken hauetakoak, %31k (16tik 5ek) ikuskaritzatik aurkako txostena aurkezten dute.
- PAI ezarri den ikastetxeen %14ak ez dauka aurreko balorazio txostenik (21tik 3 ikastetxek bakarrik daukate).
- PAI ezarri den ikastetxeen hiru laurdenetan, ingeleseko teknikariek ez zuten aholkatzen. Eta ia haien heren baten kasuetan, Ikuskaritzak ezta ere.

Ondorioz, Hezkuntza Departamentuak dokumentu honetan proposatzen duen ebaluazio prozeduran oinarritzen den ikastetxe berrien eranstea ezinbestekoa da. Helburua, curriculo barruan programa hauen ezartzeko metodologia egokia bermatzea da, hizkuntza ezagutzaren Nafarroako ikasleen eskuratzea hobetzeko.



*PAI ebaluazioaren helburu nagusia, oraingo ingelesa ikasketaren sistemaren hobekuntza ahalbidetzea (bai orain, baita etorkizunerako ere) lortzen duen hezkuntza erabaki bat hartzeko orientatzea da. Ikasturte honetan zehar, ebaluazioa PAI ikastetxeen beharrei erantzutean jarriko du arreta, baina kontutan izatekoa da ebaluazio hori, hurrengo 3 ikasturteetan, gutxienez, luzatuko diren abiapuntua eta erreferentzia izango dela. Honela, ebaluazioa hobekuntza eta atzerriko hizkuntzen ikasketa programen sendotzera orientatuta geratuko da.*

*Zentzu honetan, jada 2015-2016 ikasturtean PAI programaren ebaluazio bat hasi da: bere diseinua eta ezaugarrien analisia, egungo egoeraren eta egindako ezarpen prozeduraren ikerketa, ikerketa soziologiko bat, ikasleen kompetentzien ikerketa bat eta bere garapenerako irakasleriaren beharrei buruzko analisi bat, Hezkuntza Planifikazio Zerbitzutik. Ikerketa soziologikoak, hezkuntza komunitateko talde ezberdinen arteko eztabaida prozesu bat dauka barruan, beren iritziak hartzeko eta, iritzi hauek, era berean, ebaluazio tekniko barruan integratu ahal izateko eta programari begira kontutan izateko, erabakiak hartzeko garaian.*

*Ebaluazio prozesua ikasturte batzuetan luzatuko da, fase ezberdinetan emaitzak emanaz eta bere analisiak, atzerriar hizkuntzen irakaskuntza ereduari dagokien erabakiak era sistematikoa, zehatza eta planifikatua gida dezaten. Modu honetan, europako ikasleriari XXI. mendeko gizarteak eskatzen dien atzerriar hizkuntzen kompetentzia maila, hala nola beste ikasgaietako curriculoetan jada eskatzen den beharrezko kompetentzia maila bermatzen duen eredia eraikitzeko gai izan gaitzen, ikasle guztien aniztasunari, bere ezaugarri eta hezkuntza beharrekin, arreta era egokian jartzen diona.”*

Behin irakurketa bukatuta, Kontseilariak adierazten du PAI ematen duten ikastetxeek, eredia eskaintzen jarraituko dutela hurrengo ikasturtean, baina ez direla ikastetxe berririk gehituko programaren ebaluazioa burutu arte. Aurreko Gobernuak programa martxan jarritako era kritikatzeko du, ez programa bera. Bere ezarpeneko eskola komunitatea ez zela kontutan izan, eta ez zirela aldeko txostenak existitzen (batzuk kontrakoak ziren) adierazten du, beraz, ez ditu erabilitako irizpideak ezagutzen.



PAI programaren hurrengo eransketek, aurretik dagokion eskaera izan beharko dute, hizkuntza proiektu batekin batera, Hizkuntza Zerbitzuak eta Hezkuntza Ikuskaritzak informa dezaten.

Ondoren, “Ingeleseko ikasketa Programaren ezarpenaren lehenengo diagnostikoa” deitutako dokumentua ematen zaie bertaratukoei eta Kontseilariak PAIren ezarpenaren urritasunen ehuneko datuak azaltzen ditu, esandako Zerbitzuek adierazitak. PAIren sendotze eta hobekuntzari begira izango dela ebaluazioak azpimarratzen du. Jada 2015-2016 ikasturtean programaren alderdi batzuen ebaluazioa egiten ari da. Ebaluazio prozesua ikasturte batzuk luzatuko da, atzerriko hizkuntzaren maila on bat lortzeko eredu egoki bat bermatzeko, ikasgaien edukiak ahaztu gabe.

Ea norbaitek esatekorik daukan galdetzen du Kontseilariak.

Ernesto Delásek dio PAI eta British ereduak gurasoei entzutea eta, arrazoia badute, ematea. Haur Hezkuntzan, espezialitate titulua izan gabe, baina C1arekin, klasea eman duten irakasleak daudela adierazi du, eta egoera hau zuzendu beharko litzatekeela.

Javier Albizuk dio Puente la Reina I.P.n, ikastetxeko Klaustro edo Eskola Kontseiluaren adostasunarik gabe ezarri zela dio, Hezkuntzako Zuzendari Nagusiaren erabakiagatik. Zintzilika geratu den ikasleriarekin Hezkuntza Departamentuak zer egingo duen galdetzen du. Kontseilariak, egin behar diren hobekuntzetariko bat dela erantzuten dio, eta planteatutako arazoei erantzuna eman beharko dela.

Aniztasunari arreta da programaren hutsune handienetariko bat, Estebe Petrizanek adierazten duenez, eta hori da aztertzen eta lantzen ari dena, dagokion neurriak hartzeko. Irakasleriaren %89k C1a dauka, baina Haur Hezkuntzan titulazioarekin arazo gehiago daude, ez baitaude hainbeste tituludun, eta Lehen Hezkuntzako irakasleriatik tiratzen ari da. Edozein kasutan, behar tontorra 3 edo 4 urte barrurako dago aurreikusita, eta horri aurre egin ahalko dela uste da.





Ingeleseko irakasleriaren formakuntza mailari dagokionez, joan den urte osoan 20.000 € gastatu ziren, eta lauhilabeteko honetan 34.000 € inbertitu dira, ikastetxeetarako formakuntza jardunaldi eta materialetan.

Urtarrila bukaerarako datu soziologikoak egongo direla adierazten du, eta ikasturte bukaeran datu zehatzagoak izango direla, hurrengo 3 urteetan osatuak izango direnak. Edozein kasutan, lana zaila da PAI programa asko hazi delako denbora gutxian.

Javier Albizuk faltan botatzen du zailtasun hauen deskribapena emandako dokumentuan eta zehaztasun gutxikotzat jotzen du. PAI ikasteko eskubidea dagoen moduan, PAI ez ikasteko eskubidea existituko beharko litzateke.

Francisco José Floresek dio joan den legegintzalditik PAI eta prozesu eta prozedurei buruz hitz egiten ari dela eta Nafarroan, denbora eta helburuak dituen hizkuntza-aniztasun egitasmo estrategiko bat ez egoteak harritzen du. Behin egitasmoa eginda, helburuak lortzeko diseinatzen joan beharko litzateke eta gero ebaluatuz. Metodologiak ebaluatu beharrean, lehenik zer egin nahi den ikusi behar da, eta horretarako beharrezko baliabideak zehaztu.

Kontseilariak dio orain dela urte batzuk existitzen den egoera aztertzen ari direla eta ez metodologiak. Hau da lehenengo pausoa. Belaunaldi oso baterako hezkuntza hitzarmen bat lortzea da hemendik lortu nahi den helburua.

Estebe Petrizanek ikuspegi hau berresten du eta Egitasmo estrategiko hau egiteko zutabeak daudela uste du.

Jesús M<sup>a</sup> Ezpondak azaltzen du, hitz eginaren ondorioz, badirudiela teknikari batzuk PAIren ezarpena ez zutela aholkatzen, eta ea txosten hauek ezarpenaren aurrekoak ziren galdetzen du. Honi, Kontseilariak baietz erantzuten dio.

Alfredo Hoyuelosek bere kezka azaltzen du: Haur hezkuntzako espezialitatea ez izatea bezalako ikastetxe batzuetan hutsune larriak detektatuak baitaude, PAIrekin



jarraitzerakoan 2016-2017 ikasturtean, familien borondatea nagusitzen da haurren hezkuntza egoki bat jasotzeko eskubidearen ginetik, eta gauzak horrela, PAI geldiarazi beharko litzateke.

Kontseilariak Departamentua kontutan izango duela esaten du, eta ezinbesteko desdoitzeekin, ikastetxe berrien ezarpena geldiarazten da.

Iñaki Berasateguik hiru galdera egiten ditu: a) Ea Departamentuak 37/2014 Foru Dekretua indargabetzeko intentzioa daukan, C1 duen Lizentziatu batek Haur Hezkuntzan ingelesa ematea ekiditeko; b) Noiz informatuko zaie irakasleen ordezkarietara honi buruz; eta c) Ea zentzu bereziren bat daukan ebaluazioaren aholkularitza taldean, ingelesez matematiketako irakasle bat sartzea.

Azkeneko galderari dagokionez, Estebe Petrizanek adierazten du ez dagoela arrazoi berezirik, eta beste espezialitate bateko irakaslea izan ahalko zela. Kontseilariak gehitzen du bileraren helburu bakarra hurrengo ikasturteko PAIren eskaintzari buruz eta egiten ari den eta egingo den ebaluazioari buruz Eskola Kontseilua informatzea zela, baina Hezkuntza Departamentua hezkuntza komunitateko edozein kidearen ekarpenak jasotzeko prest dagoela.

Eta tratatzeko gai gehiagorik egon gabe, Lehendakariak bertaratutako kideen parte hartzea eskertzen du eta saioari amaiera ematen dio 18:00 ordutan.